

Elgoibar - 1275. zenb.
XX. urtea - 2023-02-24

TOKIKOM

BARREN



Bukatu dira neguko jaiak





AXULAR AGIRREGABIRIA (Mendaro, 22 urte)

Ingeniaritza Mekatronikoa gradua ikasten ari da
Mondragon Unibertsitatean.

“Eredu dualari esker, lan mundua ezagutu dut Danobat kooperatiban”

► **Definitu apur bat zure burua: Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**

Futboleko asko aritutakoa banaiz ere, orain nire hobby nagusia padela da. Ikasketei dagokienez, Batxilergoa bukatu bezain laster, IMHko Mekatronikako goi zikloan sartu nintzen eta bi urte egin nituen bertan Ingeniaritzan sartu aurretik.

► **Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekatronikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Ingeniaritza Mekatronikako gradua aukera paregabea iruditu zitzaidan garapen pertsonalerako. Horrez gain, irtenbide asko ikusten nizekion lan-mundurako. Horretarako, Mondragon Unibertsitatean sartzea pentsatu nuen, ospe handiko unibertsitatea delako eta gainera lau urtean egin beharreko gradua hiru urtean amaitzeko aukera ematen dietelako goi mailako ziklotik datozei lehenengo mailatik hirugarrenera pasatuta.

► **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Aberasgarria izan da, jendea ezagutzeko aukera izan dudalako eta profesionalki formatzeko aukera ere izaten ari naizelako bertan, 3. eta 4. mailak ingelesez eginda, gainera.

► **Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Ikasteko metodologia interesgarria iruditzen zait, nagusiki, ez dituelako egun berean ikasketak eta lana nahasten; hau da, 8 ordu lanean edo 8 ordu klasean egiten ditugu egunaren arabera. Bestetik, bi seihileko

izaten ditugu eta bakoitzaren amaieran, PBL (Project Based Learning) bat gauzatu beharra izaten dugu. PBLa ikasgai guztiekin lotura duen proiektu fisiko bat da, taldean egin beharrekoa. Horrek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen du.

► **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaiuzuna? Eta badago, zure ustez, zerbait hobetzeko?**

Profesionalki formatzeko ematen diguten aukera da gehien gustatzen zaidana. Horrez gain, PBLa edo proiektua garatzeko ematen dizkiguten baliabideak ere gustatzen zaizkit. Hobetzekoetan denborari lotutako kontu bat aipatuko nuke: ordu gehiegi egoten gara unibertsitatean, 8 orduko klasea gehi ordu eta erdi bazkaltzeko; guztira, 9 ordu eta erdi egiten ditugu bertan.

► **Eredu dualean, lanean ari zara ikasten ari zaren bitartean. Non diharduzu eta zer lan mota egiten duzu?**

Danobat kooperatiban ari naiz eredu dualean, irailean hasita. Tornu makina baten muntaketa prozesua optimizatzea izan da nire betebeharra. Muntaketa prozesu horretarako jarraitu beharreko pausoak zehaztu eta digitalizatu ditut, hurrengo muntaketak azkarrago egin ahal izateko.

► **Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Dualak, era batean, lan-mundua nolakoa den ikusteko eta ingeniariatza bukatzean zer aurkituko dudan ezagutzeko aukera eman dit, enpresa batean lan egiteko modua nolakoa den eta egunerokoan egin beharrekoak zertzuk diren ikusiz. Nire kasuan, esperientzia praktiko honek lagundu dit tornu bertikalaren muntaketa eta funtzionamendua zein diren ezagutzen.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

 youtube.com/@Elgoibarrennet

Edurne Izagirre

Psikologoa

Jai in(ex)klusiboak



“Pribilegio txuriak modu inkontzientean disfrutatzen dira, gizonen pribilegioak bezala, 'nahi gabe'”

I nauteriak jai bitxiak iruditu zaizkit beti, mozorro baten bitartez ahal dugu aske utzi egunerokoan loturik dugun alderdi bat, esploratu gure izaeraren zirrikituak pertsonaiaren baitan egotearen aitzakian eta besteen erreakzioa behatu etab. Teorian jai interesgarria izan daiteke, eta zenbait lekutan norbere joerei barre egiteko edo salaketa soziala egiteko ere erabiltzen omen da.

Baina honelako zentzu edo lanketarik gabeko gune xumeetan, talde mozorro ohikoenak kulturalak dira; ijituak, mexikarrak, afrikarrak, arabiarrek, indiarrek etab. Ijitu kuadrilla bat euskaldunez mozorrotuta ikusiko bagenu, zein izango litzateke gure erreakzioa?

Hain errotuak ditugu kulturekiko aurreiritziak (txuri europarrak izanda euskal herritarrak ere) txapel bat jarri orduko hasiko ginatkeela gure ustez kultura hortako norbait imitatzen. Ez da denbora asko mundiala zela-eta zenbait pertsona jipoitu eta bakarren bat hil ere egin zutela espainiar lurraldean Marokoren garaipena ospatzearen, edo argentinar golak ospatzearen, Frantzian. Baina gu gure lurralde euskaldunean askeak gara kolonizatu, zapaldu eta esklabizatu “genituen” kulturen parodia publikoa egiteko, ijituak, indio amerikarrak edo arabiarrek beren etxeko lehiotik begira ditugun bitartean.

Bo, baina garrantzitsuena ahaztu zait: norbait mindu bada bere etxean, jakin dezala nahi gabe izan dela, ez dugula inor iraintzeko intentzioarekin egiten. Noski! Pribilegio txuriak modu inkontzientean garatzen eta disfrutatzen dira, gizonen pribilegioak bezala, “nahi gabe”; honen inguruan pentsatzen ez dugun bitartean, gurpilak biraka jarraitzen du.

4 GUTUNAK

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Elgoibar Ikastolaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu Udalari, Musika Eskolari eta hau aurrera ateratzen lagundu diguzuen ikasle, familia eta parte-hartzaileei, eta modu berezian kalejiran parte hartu zuten guraso guztiei, 2023ko otsailaren 17an Ikastolak antolatu zuen Euskal Inauteri egunerako emandako laguntzagatik.

Elgoibar Ikastola

Errespetu eskean

Elgoibartar maiteok. Inauteriak pasatu dira eta esan daiteke neguko festei bukaera eman diegula. Egun hauetan, jende asko ikusi dugu mozorrotuta eta pozik, ondo pasatzeko gogo handiarekin. Erbuze konpartsaoko partaideok ere kalean ibili gara kale giroa alaitzeko asmoz.

Hala ere, larunbateko ekitaldian jasandako hainbat gertaera kontatzera gatoz. Gure lagun Mari, Basajaun, Basandere eta Tartalok etengabeko isekak (horietako batzuk iseka pertsonalak), buruan kolpe gogorrak, spray txorrotadak eta ondoren spray pote hutsen kolpeak, listuak... jasan behar izan zituzten arratsalde osoan zehar. Ez da lehenengo aldia horrelako gauzak jasan behar izan dituguna, eta urtetik urtera gehiagora dihoalakoan gaude.

Honek guztiak, oso triste sentiarazten gaitu eta hurrengo ekitaldietan irtezeko gogo gabe bukatzen ditugu egunak.

Gure helburu nagusia zuek denok ondo pasatzea da, eta horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu guk geuk ere ondo pasatzea. Kalean gauden denbora guztian gurekiko errespetua izatea nahiko genuke, erraldoiei dantza egiteko lekua utziz, buruhandiei beraien izenez (Mari, Basajaun, Basandere eta Tartalo) soilik deituz, beraien aurrean korrika eginez...

Asteartean, gure buruhandiak korrikarik egin gabe erraldoien konpartsaekin ibili ziren. Zer iruditzen zitzaizuen? Zer egin behar dugu hemendik aurrera? Buruhandiek errespetu faltaren bat

sentitzen badute, erraldoien ondora joan? Binaka joan eta gogorrago jo? Denboraldi batez buruhandiak gordeta mantendu? Asteartean bezala pasieran ibili?

Denok hausnarketa bat egin beharrean gaudela uste dugu, erraldoi eta buruhandi barruan pertsonak goazela kontuan edukiz. Nahi izanez gero, zuen erantzunen zain gelditzen gara, Instagrameko kontuan (*erbuze.elgoibar*) edota emailaz (*elgoibarkoerraldoiak@gmail.com*).

Maiatzeko erraldoi topaketan ikusiko dugu elkar!

ERBUZE (Elgoibarko Erraldoi, Buruhandi eta Zezenzikleten konpartsa)

Errepresiorik ez! Etxera!

Preso gehienak Euskal Herrian dira jadanik, baina euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen politikak indarrean jarraitzen du. Ikusi dugu azken egunetan Asier Karrera preso ohia eta kalean zegoena berriro ere espetxera eramana izan dela. Seigarren presoarekin gertatu da berdina. Kalean zeuden, legearen arabera espetxeko epaileak hala aginduta, baina Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, berriro espetxeratu dituzte.

Baina guk argi dugu elkarbizitza eraiki nahi dugula, eta horretarako, konponbidean jarri behar dugu indarra, oraindik orain mantentzen direlako sufrimendu-egoerak. Horrek trabarik gabeko bidea eskatzen du, gradu-aldaketak eta espetxe-baimenak salbuespenik gabe ezar ditzatela eta legeak dioena bete dezatela.

Orain arte bezala, elkarrekin egin behar dugu bide hau. Horregatik, gaur, ostirala, hilaren 24a, elkartuko gara iluntzeko 20:00etan Kalegoen plazan. Bertan, Etxera ikur berriak salgai izango ditugu.

Elgoibarko Sare



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

📞 943 744 112

📞 688 655 658

Basarteko skate parke inguruak zabortegia dirudi:


"Basarteko skate parkea dagoen ingurua zikinkeriaz beteta dago: Sofak, plastikozko aulkiak... Ume asko ibiltzen da inguruan eta arriskutsua dela uste dugu. Udalari zabor hori guztia hortik erretiratzeko eskatu nahi diogu. Eskerrik asko".



Haur parkeetan mantentze lanak sarriago egin behar dira:

"Mintxetako haur parkean ibili gara eta egurrezko jolasetako batean iltze handi bat ageri da. Oso arriskutsu dago, norbaitek min hartzeko moduan. Iruditzen zaigu haur parkeak sarriago begiratu behar direla, eta behar diren mantentze lanak egin".



 **Txalo bat Udalari, gaueko taxi zerbitzua jartzeagatik:** "Eskertzekoa da festa egunetan etxera joateko doako taxi zerbitzua jartzea. Pena da horrela bizi beharra, baina neskak askotan beldurrez joaten gara etxera bidean. Horrelako zerbitzurik behar ez izatea litzateke onena, baina egoera hori iritsi bitartean, gure segurtasunean pentsatzeagatik eskerrak ematea tokatzen zaigu".

Osasun gida

 **aldaz**
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elbar

677 551 850



fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

RPS 271/12

 **ainhoa**
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar

943 740 359

Deba

943 192 192


leku eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

 **federópticos**

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Ekainerako amaitu nahi dute Urazandi eta Kalamua kaleak batuko dituen bidea



Aste honetan hasi dituzte Urazandi eta Kalamua kaleak batuko dituen bidea egiteko obrak, eta ondo bidean, ekainerako zabalduko dute. Gaur gaurkoz Kalamua kaleak ez dauka loturarik Urazandi kalearekin ipar-mendebaldeko muturrean; irteerarik gabeko kalea da. Bi kale horiek lotuta, auzoan trafikoa arindu eta antolaketa-aukera berriak ahalbidetu nahi dituzte. Noranzko bakarreko eta behearanzko noranzkoko galtzada duen diseinua egitea erabaki dute. Alboetan bi metroko zabalerako espaloiak izango ditu bideak, eta %6ko gehieneko malda. Proiektuan, bestalde, euri-uren sarea handitzea

ere aurreikusi dute, eta baita bide berria argiztatzeko behar den argiteria-sarea jartzea ere. Obrak iraun bitartean, Kalamua kalea itxita egongo Herri Eskolatik kale amaierara arte, eta bertako garajeetako autoak sartu ahal izango dira bakar-bakarrik.

Bide berriak, bi kaleen arteko lotura bermatzeaz eta trafikoa antolatzeko alternatibak ahalbidetzeaz harago, auzoko espaloi guztiak berritzeko aukera ere emango duela azaldu dute Udaletik, eta espaloiak zabaldu eta zoladura berrituko dutela, aparkalekuak eta zirkulazioa arriskuan jarri gabe.

Baso Biziak elkarteak laguntza eskatu du biharko zuhaitz landaketarako

Baso Biziak elkarteak beste 500 zuhaitz landatzeko asmoa dauka, eta horretarako, herritarren laguntza eskatu du. Biharko egin dute deialdia. 9:00etan batuko dira Mintxetan, eta handik autoetan joango dira Muskirutzu

ingurura. Lurgaila fundazioarekin elkarlanean antolatu dute biharkoa, eta hango kideek eramango dituzte zuhaitzak landatzeko behar diren erremintak. Lanak amaitu ostean, mokadutxoak egingo dute.

'Zu gabe, ni naiz' hausnarketa saioa antolatu dute astelehenerako

Sarritan entzun izan ditugu *Zu gabe, ez naiz ezer* moduko esaldiak maitasun kontuetan, eta horrelako topikoak hausteko hausnarketa saioa antolatu dute astelehenerako, emakumeentzat. "Gaizki maitemintzen irakatsi digute. Bikotekiderik ez badugu ez dugula ezer balio esan izan digute, sufrimenduak baduela lekua

maitasunean. Izan ere, inork ez digu esaten maitasunak ez duela minik ematen: maitasuna lagunartean haztea dela; maitasuna norbera izateko lekua dela; maitasuna sufrimenduaren edo zigorraren kontrakoa dela", azaldu dute antolatzailleek. 18:00etan izango da, Lilan, eta ez da izenik eman behar.

Herriko emakume zientzialariei buruzko erakusketa egingo dute Lekuederren martxoaren 1etik 19ra



Emakume zientzialarien eguna izaten da otsailaren 11, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Udalak. Batetik, herriko hainbat erakusleihotan emakume zientzialari ezagunen irudiak jarriko dituzte, Egur arte eskolarekin elkarlanean, eta bestetik, *Gu herriko stem emakumeak* kale-erakusketa antolatu dute. Lekuederren jarriko dute ikusgai, elizaren alboan, martxoaren 1etik 19ra arte. Bertan, herriko emakume zientzialari batzuk

agertuko dira beraien esperientzia kontatuz: Ana Echeverria 'Señorita Anita', Cristina Montero, Amaia Gabilondo, Miren Aguirre, Nagorre Ruiz de Escudero, Miren Ota, Leire Garate eta Ana Carolina Lodeiro. Proiektu hau BARREN aldizkariarekin eta Meka Lanbide Eskolarekin elkarlanean osatu du Udalak. Helburua da emakumean zientzia alorrera erakartzea.

Elgoibarko EAJ-PNVk entzute aktiboko kanpaina jarriko du abian otsailaren 27an

Elgoibarko EAJ-PNVk elgoibartarrekin garatu nahi ditu datozen urteetarako Elgoibarko proiektuak. Horretarako, otsailaren 27tik martxoaren 16ra kanal desberdinak irekiko ditu online herritarren iritzia jasotzeko, eta horrez gain, Batzokia herritarrentzako zabalduko dute, astearte eta ostegunetan honako ordu tarteetan: 10:30-12:30 eta 17:30-19:30. Entzute aktibo kanpaina honen bidez, herritarren ekarpen eta

sentipenak jaso nahi dituzte aurrera begirako bidean kontuan izan eta etorkizuneko Elgoibar eraikiko duten proiektuak lantzeko. Maialen Gurrutxaga Uranga EAJko alkategaiak adierazi du aurrean duena konpromiso garantzitsua dela berarentzat eta ilusioz eta gogotsu helduko diola. Esan duenez, gertutasuna eta elkarlana izango dira bere kudeaketaren ezaugarri garrantzitsuenak.

Plaka fotovoltaikoak jartzen ari dira kiroldegiko teilatuan

Olaizaga kiroldegiko teilatuan 240 plaka fotovoltaiko ipiniko dituzte maiatzera bitartean. Lanak bi fasetan egingo dituzte: 140 plaka jartzeko lanak hasi dituzte orain, eta ondoren, beste ehun jarriko dituzte. Lehen fasean egin beharreko lanaren lizitazioa joan den urtearen amaieran esleitu zuten (59.994 €, BEZ barne), eta Udaletik esan dute obrak 2022ko azken hiruhilekoan egitea aurreikusi bazuten ere, lanak materiala eskuratu dutenean hasi dituztela. Gainerako ehun plakak 2023ko maiatza baino lehen ipintzea aurreikusten dute, eta lanaren bigarren fase horrek 40.000 euro inguruko aurrekontua izango du, BEZik gabe. Olaizagako teilatuan ezartzen ari diren instalazio fotovoltaikoa kiroldegiaren autokontsumorako



erabiliko dute, eta kalkulatu dute urtean 67.682 kWh (% 27) aurrezteko bidea emango duela; 10.275 euro dirutan.

Iñaki Arregi Uria izango da Mendaroko EAJren hautagaia Udal Hauteskundeetarako

Mendaroko EAJk Iñaki Arregi Uria egungo alkatea buru duen zerrenda aurkeztuko du maiatzeko Udal Hauteskundeetarako. "Ilusioz eta gogo handiz" hartu du izendapena Arregik, eta alderditik esan dute Mendaroren etorkizuneko erronkei alkatetzatik ahalik eta ondoen erantzuten jarraitzea dela haren asmoa. Mendaroko EAJ-k Arregiren hurbiltasuna eta urte hauetan hartutako esperientzia nabarmendu ditu. "Aurrera begira hartu duen konpromisoa Mendaroren garapenean aurrera egitea da, beti ere hurbiltasunetik eta herritarrei entzunez". Arregik eskerrak eman dizkio alderdiari, berriro ere berarengan jarri duen konfiantzagatik.



Ion Zubiaurre Ros izango da bigarrena Elgoibarko EAJ-ren zerrendan

Alderdi politikoak maiatzaren 28rako zerrendak osatzen ari dira, eta Elgoibarko EAJ-k eman du zerrendako bigarrenaren izena: Ion Zubiaurre Ros (Elgoibar, 1981). Arkitektoa lanbidez, IDOM/ACXTn egin zuen bere arkitekto karreraren lehen zatia. 2012tik bere arkitektura-bulegoa kudeatzen dihardu, ONYON, beste bazkide batekin. Gaur egun, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Masterra (EMBA) egiten ari da.

Zubiaurrek aurrerapausoa ematea erabaki du, uste duelako EAJ-PNVren proiektua "oso erakargarria, ilusionagarria eta anbizio handikoa dela". Bere zeregin nagusia udalerraren hobekuntza urbanistikoan sakontzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzea, irisgarritasunean aurrera egitea eta elgoibartarrei eguneroko bizitza erraztea izango



da. Maialen Gurrutxagak adierazi du Zubiaurre funtsezko pieza izango dela irisgarritasuna hobetzeko bidean, azpiegitura berrietan edo espazioen berroneratzean sakontzeko. "Ilusioa dugu eta etorkizunari begiratzen dion proiektu sendoa dugu Elgoibarrerako".

Elkarretaratzea egin dute Osakidetzaen zerbitzua hobetzeko eskatzeko



Sindikatuak deituta, Osakidetzaen kontrako elkarretaratzeak egin zituzten martitzenean hainbat herritako osasun zentroen aurrean, eta Elgoibarren ere bildu ziren hainbat lagun anbulatorio aurrean. *Zuen mespretxu eta kudeaketaz kokoteraino* lemapean egin zuten protesta. Osakidetza ematen duen zerbitzua eta gestioa salatu zituzten, bai eta langileei ematen dieten tratua ere.

|| Buruhandienganako errespetua eskatu du Erbuze konpartsak

Gaurkoan triste goaz idatzi zuten Erbuze konpartsako kideek zapatuan, inauterietako kalejira amaitu ostean. Ez zuten azalpen gehiagorik eman, baina argi laga zuten inauterietako kalejiran zerbait gertatu zela, eta martitzeneko kalejiran konfirmatu zen, buruhandiak airezko puxika batekin irten zirenean. Ez zuten korrika egin eta ez ziren gatzetxoen atzetik ibili haiek harrapatu nahian. Buruhandien ondoan joan ziren bide guztian, herritarrek jakin zezaten minduta zeudela. "Zapatuan gazte kuadrilla batzuk pasatu egin ziren", esan dute. Buruhandien kontrako erasoak jasan behar izan zituztela azaldu dute: irainak, kolpeak, txistua botatzea... "Sekula ez dugu horrelakorik bizi izan, buruhandiok oso gaizki pasatu genuen, erlojuari begira egon ginen, kalejira noiz amaituko zain. Jasanezina izan zen". Buruhandi berriak erabiltzen hasi direnetik nabaritu dute aldaketa. Handiagoak dira, baldarragoak eta mugimendua mugatzen diete. "Disneyko pertsonaien burua erraz kentzen genuen, atzetik norbait etortzen bazitzaigun jotzera, buelta eman eta berehala ikusten genuen nor zen, baina orain mugatuago gaude eta ume batzuk gure gainetik jartzeko aukera ikusi dute".

Hain bukatu zuten minduta, martitzenean protesta egin zutela. Korrikarik ez egitea erabaki zuten, eta uste dute eraginkorra izan zela beraien jokabidea. "Ume txikiak bakarrik geratu ziren kalejiran, eta haiekin jolasean ibili ginen. Beldurra galtzeko oso baliagarria izan zen".

Jokoaren arauak argi daudela uste dute eta horiek errespetatzea eskatu dute. Buruhandi barruan sartzen den pertsona kareta soinean duenean buruhandi bilakatzen da, eta izen hori dauka, Basajaun, Basandere, Tartalo edo Mari. "Barruan doan pertsonarenganako irain pertsonalak ezin ditugu onartu". Buruhandi eta gazteen arteko harremana zirikatzean oinarritzen da, baina errespetuz: "Hori da jokoa, pixkat buruhandia zirikatu eta korrika ihes egin, berak ez harrapatzeko, baina zapatuan 50 lagunaren artean inguratzen gintuzten eta korrika ere ezin genuen egin". Spray-a botatzen zietela ere salatu dute, eta potea bera ere bai.



Aurrera begira, herritarren iritziak jaso nahi dituzte. Beraiek ondo pasatu nahi dute, eta herritarrek beraiekin gozatzea, baina horretarako herriak zer nahi duen jakin behar dute. Instagrameko kontua (*erbuze.elgoibar*) eta *elgoibarkoerraldoiak@gmail.com* helbidea jarri dituzte herritarren eskura, iradokizunak jasotzeko. Hausnarketa egin eta maiatzeko erraldoien topaketa festa izan dadin saiaturiko dira. Era berean, norbaitek konpartsako kide izan nahi badu, 16 urtetik gorakoentzat atekak zabalik dituztela gogorarazi dute.



EGUN KOLORETSUAK

✍️ 🗣️ Ainhoa Andonegi
🗣️ Asier Orbea / Ainara Argoitia

Kolore biziak, jantzi koloretsuak, umorea eta eguraldi ona; inauteriak ospatzeko osagai primerakoak. Denak bat egin du egunotan, eta giro onean joan dira inauterak Elgoibarren zein Mendaron. Hainbat eragileren artean prestatu dute aurtengo egitaraua, eta eguen zuri egunetik hasita martitzenera arte iraun du mozorroen festak. Orriotan batu dugu aurtengoak eman duenaren errebasoa, baina argazki gehiago eta bideoak gure webgunean aurkituko dituzue. barren.eus













SASIKOIPETSU, INAUTERIETAKO USADIO AHAZTUA



Garizumako debekualdiaren aurreko festak dira inauteriak, eta gauza bera esan dezakegu sasikoipetsu, sasikopotzu edo txitxiburduntzi ohitura zaharraz ere. Garizuma aurreko domekan ospatzen zen Euskal Herriko hainbat lekutan. Egun horretan jendea mendira joaten zen, sua egin, makilatxo batekin burruntzia egin eta sutan erretzen zituzten txerrikiak. Gaur egun, txerri-hiltzerik egin ez arren, bizirik mantentzen dute ohitura hau gure inguruko hainbat herritan. Mendaron, esaterako, bigarren urtez ospatu dute LH6ko ikasleek, guraso talde baten ekimenez. Argazkiak eta bideoa: barren.eus.

✍️ Aina Argoitia

I nauterien merkantilizazioari erreferentzia eginez, honela idatzi zuen Onintza Enbeita kazetari eta bertsolariak *Berria* egunkarian, otsailaren 12ko *Bira* atalean: "Horregatik pentsatzen dut galdu dela edo ari dela galtzen txitxiburduntzi egitea. Izan ere, izenak dioen bezain sinplea da arratsalde pasarako egin behar dena: burruntziaren puntan txitxia ipini, sutan erre eta jan. Jai sinplea da egungo handikerietarako: ez da arropa berezirik behar, ez da diru askorik gastatu behar, ez da besteak baino mozorro hobearekin joan behar". Eta baliteke bete-betean asmatu izana Enbeitak. Aspaldiko ohitura izan da gurean inauterien bueltan sasikoipetsu edo beste hamaika izenez ezaguna den usadioa ospatzea, baina belaualdi gazteek ia ez dute ezagutzen. Gure herri curriculumaren parte da, baina, eta gure kultur ondarearen transmisioa bermatzeko

ahalegin horretan, ohitura berreskuratzea erabaki zuen iaz Mendaroko Arno Guraso Elkarteak LH6ko ikasleekin. Aurten, guraso elkartearena barik, adin-tarte horretako ikasleen guraso talde batena izan da ekimena, baina modu berean ospatu dute sasikoipetsu seigarren mailako ikasleek.

11:00etan batu ziren domekan ikasle eta gurasoak tren geltoki parean, eta oinez egin zuten Santa Kurutzera arteko bidea, Olabazatik. Oinez abiatu zen taldearekin bateratsu irten ziren kotxez sua pizteko ardura zuten gurasoak, jana eta edana hartuta. 48 bat lagun ziren txitxiburduntzi egitera batutakoak. Olabaza baserri pareraino iristean jaso zituzten lehenengo argibideak, Isidro Astorkiaren ahotik. 78 urte beteko ditu apirilean Astorkiak eta gaztetan nola ospatzen zuten kontatu zien. "Otsailean ospatzen genuen, sasoi-buelta honetan beti. Gabon-bueltan hiltzen zen txerria baserrietan

eta hilik ederrenak hauexek izaten ziren, apirilera artekoak. Nik badakizu nola kantatzen dudan? *Enero, febrero, marzo, abril txarrixa janda majo dabil.* Amak sasikopotzu zela esaten zuenean, hartzen genuen etxean zegoenetik, urdaia eta txorizoa-eta, joaten ginen mendi aldera, sutan ipini eta haretzek jaten genituen, elkarri afana emanda. Etxean amak ipinitakoa baino txarragoa izaten zen, baina hantxe ibiltzen ginen, afanean. Zeozer egin, badakizu, gaur beste ikusi ere ez zen egiten eta".

Rosa Mari Arriolak ere akorduan dauka gaztetan nola ospatzen zuten. "Amarekin joaten ginen gu, neba-arrebok, Kuku aldera, arratsalde-pasa, Kapainguako izeba Pakita eta lehengusu-lehengusinekin, zartagina, arrautzak eta txorizoa hartuta. Harritxoak bildu, txotxekin sua piztu eta txorizo-tortila jaten genuen, eta afariketan jolasten ginen gero umeak. Gero, 11-12 bat urte genituela, lagunekin hasi ginen ospatzen, Ospas aldera joanda, baina igualtsua izaten zen gure jaia". Mari Tere Iriondok 86 urte beteak ditu eta aipatu du guraso eginda hasi zela ospatzen, seme-alabekin eta auzoekin. "Jeneralean patata tortilla egiten genuen guk, txorizoa umeentzat astuna zela-eta. Baina galdu zen gero. Urteren batean sua ere zabaldu zen eta debekatu zuten". Antonio Iriondo eta Mari Karmen Bernedo senar-emazteek ere akorduan dute umetan etxeokoen ospatu izana. "Gure etxe burua dena haitza zen eta haitzarterik onenen bila ibiltzen zen jendea sua egiteko", oroitu du Iriondok. Bernedo aiastiarra da sortzez eta Zirardamendira igo ohi ziren



amarekin. "Gaur beste ez genekien eta gerran hildakoen gurutze artean ibiltzen ginen jolasean. Ilusio handiz bizi genuen eguna". Gazteagoa da Olatz Urbietan, 1980koa, baina etxean beti ospatu dute sasikopotzu. Kontatu du Otarre aldera joan ohi zirela etxeokoen inauterietako domeka arratsaldean. "Han, harriak batzen genituen lehenengo, haiekin borobil bat egin, txotxekin sua egin eta txorizo-tortilla egiten zuen gure amak. Huraxe jaten genuen. Ederra izaten zen". 2020az geroztik, lagunekin ospatzen du. "Orain, baina, Santa Anako parrillak erabiltzen ditugu eta txerriak jaten dugu". Halaxe egin zuten atzo LH6ko ikasleek ere, baina Santa Kurutzen.



Parte-hartze handia eta irudimen handiagoa izan dituzte Bertsio Gauean



Hamazortzi taldek parte hartu zuten inauterietako zapatuan Elgoibarko Udalak antolatu eta Atxutxiamaika aisialdi taldeak gidatutako Bertsio Gauean eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, parte-hartzea bera eta parte-hartzaileek agertutako irudimena eta sortu zuten giroa aintzat hartuta. Lau sari banatu zituzten antolatzaileek: bakarlari onenari zegokiona, Sari Berezia, eta bi talde onenentzakoak. Bakarlariei sailean, Zigor Cornejo saritu zuten, Tino Casalen *Eloise* kantua bertsioagatik, eta 170 euro jaso zituen saritzat. Sari Berezia, berriz, Unai Usobiagak

eskuratu zuen SKA-P taldearen *El vals del obrero* kantua, eta 150 euro jaso zituen saritzat. Talde onenaren saria *Aladinas* taldeak jaso zuen, Maria Escarmientoren *Puedes contar conmigo* kantua bertsioa eginda. Amaia Rubio, Saioa Aranburu, Nerea Perales, Leire Galindo, Nagore Bergara, Andrea Beraza, Maria Arrieta eta Jon Agotek osatu zuten taldea, eta haiek eraman zuten sari nagusia, 250 eurokoa. Bigarren talde saritua, berriz, Joane Iriondo eta Nerea Rodriguezek osatutakoa izan zen. *Shakiraren BZRP music sessions#53* kantua interpretatu zuten eta 170 euro eskuratu zituzten.

Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron

Martxoaren 1an ospatzen du Eliza Katolikoak Aingeru Guardakoaren eguna, eta Mendaron ere ospatuko dute Plaza auzoko Aingeru Guardako ermitan. Jai batzordetik jakinarazi dutenez, 11:00etan izango da elizkizuna egun horretan. Ospakizun nagusia, baina, domekan egingo dute, martxoaren 5ean. 11:30ean Hitzaren liturgia izango dute ermitan, eta ondoren, ohiko ospakizuna. Aitor Urbieto eta Maider Arregi bertsolariak arituko dira bertsotan, eta Igor Rey eta Maite Olazabal mendaroez jarriko dute giroa soinu eta panderoarekin. Ondoren, herri-kirolen erakustaldia izango dela ere aurreratu dute. Jai batzordeak txosna ere jarriko du.



Salgai daude Nagusilanen kontzertu solidarioarako sarrerak

Nagusilanez, adineko boluntarioen elkarteak, osasungintzako langileak omentzeko kontzertu solidarioa antolatu du Donostiako Kursaalako auditoriumean martxoaren 30erako (20:00etan) eta sarrerak salgai daude dagoeneko, 12 euroan, *kursaal.eus* webgunean edota lehiatilan bertan. Musikeneko egungo ikasleek eta ikasle ohiek osatutako orkestrak eta Kantakidetza Abesbatzak, Hernaniko Kantuz Abesbatzak eta Orioko Salatxo eta Astigarragako Aitzondo abesbatzek parte hartuko dute. Guztira 170 koralista izango dira, eta lau bakarlari: Maria Martin Campos sopranoa, Lucia Gomez Aizpurua mezzoa, Josu Cabrero Antolin tenorea eta Juan Laboreria Zubillaga baritonoa. Eros Quesada Ventura izango da zuzendari nagusia eta ahosbatzen zuzendaria, berriz, Igor Arroyo.

Nagusilanetik jakinarazi dute herrietatik autobusak jarriko dituztela joan-etorrirako, baina aurrerago emango dutela horren berri.



Ipuin kontaketa saioa antolatu dute haurrentzat Elgoibarren hilaren 7rako



Mendaroko irakurketa klubeko azken saioa

Nire izena, zure izena. Nire ahotsa, zure ahotsa izeneko ipuin kontaketa saioa izango da Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegian martxoaren 7an. Mireia Delgado pedagogo eta ipuin kontalaria gonbidatu dute horretarako eta bi saio emango ditu: 17:00etan, LH1eko ikasleentzako, eta 17:30ean, LH2 eta LH3koentzat.

Elbira Zipitria hezitzaile eta euskaltzaleari buruzko dokumentala emango dute Mendaron hilaren 5ean



Elbira Zipitria Irastortza hezitzaile eta euskaltzalea (Zumaia, 1906-Donostia, 1982) hil zela 40 urte bete ziren egun berean, iaizo abenduaren 26an, estreinatu zuten hari buruzko dokumentala. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu eta Baleuko ekoiztetxeak sortutako lana da *Elbira*, eta hainbat adituren eta haren gertuko kideren eskutik Zipitriaren gertaeretan eta hark herriari egindako ekarpenean sakontzen du dokumentalak. Mendaron, martxoaren 5ean emango dute, San Agustin Kulturgunean, 18:00etan.



'Lumineszenteak' erakusketa zabalduko dute martxoaren 3an



Lumineszenteak erakusketa zabalduko dute martxoaren 3an Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Igone Mariezkurrena Fernandez kazetariaren eta Irantzu Pastor Ordoki argazkilariaren proiektua da *Lumineszenteak*. Diskurtso nagusietan lekurik ez duten emakumeen bizitza-historiak eta irudiak biltzen ditu. 2018tik 2021era, Palestinan, Indian, Lakota nazioan eta Euskal Herrian dokumentatutako narrazioak eta material grafikoa batu dituzte. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era.

Bertso saioarekin hasiko dituzte Mendaron Motxaila Eguneko ospakizunak

Martxoaren 17-18ko asteburuan ospatuko dute Mendaron Motxaila asteburua, eta punta-puntako bertso-saio batekin hasiko dituzte ospakizunak. Barikuan, hilaren 17an, izango da bertso saio hori, 22:00etan. *Zerua*, *motxailen aterpe* izena eman diote antolatzaileek, Motxaila Elkarteak, eta lau bertsolari gonbidatu dituzte, Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko finalistak laurak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Joanes Illarregi. Ainhoa Urbieta mendarorarrak egingo ditu aurten gai-jartzaile lanak. Bertso saioa Udalak babestu du diruz eta sarrerak salgai daude dagoeneko, Morroskillo dendan eta Aitzbeltz tabernan, 7 euroan.



Biharamunean, hilaren 18an, ospatuko dute Motxaila Eguna bera. Goizean, eta ohitura bihurtu den eran, Aitzbeltz kobazulora igoko dira oinez, Gaztetxetik abiatuta. Kobazuloan ekintza ezberdinak egingo dituzte. Handik jaitsitakoan, Gaztetxean bazkalduko dute eta luzatuko da eguna. Egitarau osoa guztiz lotu gabe dute oraindik antolatzaileek, baina aurreratu dute aurreko urteetako formatu bera izango duela egunak. Arratsaldean, poteoa, eta gauean, kontzertuak, Gaztetxean.

Darwin mendikatean egindako espedizioko argazkiak jarriko ditu ikusgai Eñaut Izagirre geografo eta glaziologoak Aita Agirre Kultur Kafean

Eñaut Izagirre geografo eta glaziologo elgoibartarrak eta Incognita Patagonia taldeak Darwin mendikateko izotz-eremuan egindako argazkiekin erakusketa osatu dute Ongarri Argazki Taldeak eta Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Hilaren 28an bisita gidatua egingo dute eta martxoaren 18ra arte egongo da bisitatzeko aukera Aita Agirre Kultur kafean.

Into the Ice. Esplorazioa eta Zientzia Darwin mendikatean izenburua eman diote argazki-erakusketari. Patagonia kontinentaletik eta Magallanes itsasartetik haratago, Tierra del Fuego artxipelagoan, Hego Amerikako mutur austrolean, oraindik badaude esploratu gabeko mendiak; mendiak eta glaziarrek eta horietxek ikertzen jardun zen Eñaut Izagirre eta bere taldea. Darwin mendikateko



izotz-eremuaren goraguneak izan dira Into The Ice espedizioaren helburua, eta esplorazio geografikoa, ikerketa glaziarra, eskalada eta abentura uztartu ditu planetako mendikate urrun eta basatienetako batean. Erakusketa hau horren guztiaren erakusgarri dela aurreratu dute antolatzaileek.

Haritz dantza taldeak banatu ditu marrazki lehiaketako sariak

Haritz Euskal Dantzari Taldekoen 50. urteurrenaren harira marrazki lehiaketa antolatu dute *Herri bat dantzan* lemapean, eta joan zen zapatuan banatu zituzten sariak. Hauek izan dira irabazleak:

- LH1-2-3 mailan: Alejandro Lasanta eta June Alonso.
- LH4-5-6: Nayra Manzano eta Maule Bengoetxea.
- Dbh: Leire Eguren eta June Arriaga.

Ibon Makazagak eta Nahia Alvarezek aipamen berezia jaso dute.



Stock feria dela-eta, trafikoarentzat itxita egongo da herrigunea martxoaren 3an eta 4an



Txankakua Merkatari Elkarteak stock feria antolatu du martxoaren 3rako eta 4rako, eta oraingo ere, merkatariek denden atarietan jarriko dituzte ikusgai euren produktuak. Hori dela-eta, egun horietan trafikoarentzako itxi egongo dute herrigunea. San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleak itxiko dituzte.

Gaur arratsaldean zabalduko dute 'Aldenik Alden' egitasmoko martxoko ekintzetan izena emateko epea

Bi ekintza proposatu ditu *Aldenik Alden* egitasmoak martxorako, eta gaur arratsaldeko 17:00etan zabalduko dute izena emateko epea. Martxoaren 11rako *SanPedroAbentura* antolatu dute. Idotorbe auzora egingo dute irteera, egunpasa joango dira, eta bertan era askotariko jolas eta dinamikak egingo dituzte. Martxoaren 25erako, berriz, Pista! Proba jolasa. Egunpasa egingo dute elkarrekin, Elgoibarren, eta taldeka txoko desberdinetan jarriko dituzten erronka eta probak gainditu beharko dituzte. Proiektua izaten ari den arrakasta ikusita plaza kopurua handitzea erabaki dute, eta oraingoan ez dituzte plazak zozketa bidez esleituko. Martxoaren 3ra arte dago izena emateko epea.





ZAPOREAK ELKARTEARI LAGUNTZEKO ERRONKA DEBABARRENA OSORA ZABALDU DUTE

✍ Ekhi Belar - DKT

Orain dela bost urte Ermuko eta Eibarko sukaldari batzuek hasitako erronka eskualde osora zabalduko dute aurten, eta horrela, Debabarreneko herri guztietan egongo da Zaporeak elkarteak Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuen alde egiten duen lan solidarioan laguntzeko aukera. Gainera, erronka hasi aurreko egunetan, elikagaiak bilduko dituzte eta errifa-txartelak salduko dituzte.

Zaporeak elkartekoek 1.600 otordu ematen dituzte egunero Lesbos uharteko errefuxiatuen esparruan, eta horretarako, erakundeetatik jasotzen duten laguntzaz gain, herritarren ekarpenak berebizikoak dituzte. Zaporeak proiektua zenbait sukaldari jarri zuten martxan, eta eskualdean sukaldari solidarioak ditugula-eta, 2019an ekimen berezia abiatu zuten Ermuan eta Eibarren, errefuxiatuei

laguntzeko: "Baietz bakoitzak bere herrian 1.000 kilo janari bildu". Esan eta egin. Gainera, errifak saldu zituzten eta paella erraldoia ere egin zuten Ermuan. 4.000 euro inguru biltzea lortu zuten.

Herritarren erantzun ona ikusita, ekimena indarra hartzen joan da eta jasotako laguntza eta elikagai-kopurua ere handitzen joan da urtero. Iaz, 6.200 euro bildu zituzten; aurten, kopuru hori gainditzea da erronka. Horretarako, hiru aukera



ematen dituzte ekimenaren sustatzaileek: errifak erostea, elikagaiak ematea eta martxoaren 25ean Ermuan egingo den ekimenaren parte hartzea.

ERRIFAK SALGAI

Errifak salgai jarri dituzte dagoeneko, euro baten, eta irabazleek, eskualdeko jatetxe batean afaria irabazteaz gain, Eibarko Artisten Elkarteko kideek emandako artelan bana eramango dute etxera. Afariak Ermuko Amatxi, Sagarra eta Mendiolan; Eibarko Casino, Kontent eta Baratzen; Elgoibarko Belaustegin; eta Itziarko Salegi jatetxeetan emango dira. Gainera, Eusko Label eta KMO produktuez osatutako otarra ere zozkatuko dute.

JANARI-BILKETA

Zaporeaki laguntzeko beste modu bat elikagaiak ematea da. Horrela, martxoaren 20tik 24ra, Debabarreneko herri bakoitzean

elikagai jakin bat jasoko dute, lekaleak batik bat. "Erraz egosten diren elikagaiak batzen ditugu, jende askori eman behar baitzaio jaten", diote ekimenaren antolatzaileek.

Ermuan, Soraluzen eta Deban arroz luzea bilduko dute; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroia; Eibarren, dilista pardina; Elgoibarren, garbantzu pedrosillanoa, eta Mutrikun, berritasun gisa, arrain-kontserbak.

Oraindik ez dute zehaztu herri bakoitzeko elikagaiak zein tokitan jasoko dituzten, martxoaren hasieran zehaztuko baitituzte bilketa-puntuak.

TUPPER SOLIDARIOA

Erronka honekin hasi zirenetik gertatu ohi den bezala, tupper solidarioak banatzen emango diote amaiera ekimenari, eta aurren, Ermuan egingo dute ekintza, martxoaren 25ean. "Ekimen hau garrantzitsua da, errefuxiatu esparruetan zer jaten duten ikusteko balio duelako. Ume askok galdetzen dute ia zer gertatzen ari den esparruetan", azaltzen dute antolatzaileek. Izan ere, tuperrak errefuxiatu esparruetan banatzen diren antzekoak dira. Gainera, errefuxiatuen egoera hobeto ezagutzeko, Lesbosen gertatzen ari den errealitatea erakutsiko dute Ermuko kaleetan jarriko dituzten bideo batzuen bitartez.

BAZKIDE BILA

Debabarrenean egingo den ekintza hau garrantzitsua da Zaporeakentzat, baina edozein laguntza da gutxi, eta elkarteari laguntzeko bazkide berrien bila dabilta. Kanpaina abiatu dute asmo horrekin. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute, eta aportazio guztiak ongietorriak izango direla. Gainera, euro baten truke, Zaporeakek bazkari duina bana dezakeela gogorarazi dute.

BAZKIDE EGITEKO BI AUKERA DAUDE

■ Banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880).

■ www.zaporeak.eus webgunearen bitartez.

Pirinioetara mendi irteera antolatu du Morkaikok



Morkaiko mendi taldeak Luz-Saint-Sauveur ingurura mendi eski irteera antolatu du martxoaren 4rako eta 5erako. Zapatuan, martxoaren 4an, goizaldean irtengo dira Elgoibartik autobusez. Hainbat ibilbide begiz jota dituzten arren, izena ematen duten lagunen mailaren arabera eta elurraren baldintzen arabera hartuko dute azken erabakia. Alabaina, "zailtasun ertaineko" eski zeharkaldiak egingo dituztela zehaztu dute, "gutxi gorabehera 1200 metro inguruko desnibel positiboa eginez egun bakoitzean". Norberak eraman beharko du mendian

segurtasunez ibiltzeko materiala: ARVA, pala, sonda, kranpoiak eta pioleta. Horiek derrigorrez eraman beharrekoak izango dira. Hala ere, material hori lortzeko laguntza emango du Morkaikok. Mendian federatuta egotea -Pirineotako aukerarekin- ere ezinbestekoa izango da irteeran parte hartu ahal izateko. Morkaikoko bazkideentzako prezioa 80 eurokoa izango da, eta 100 eurokoa gainontzekoek ordaindu beharrekoa. Morkaikoren egoitzan eman daiteke izena, eguaztenetan (19:00-20:15), e-postaz (morkaiko@morkaiko.eus) edo telefonoz (653 010 697 edo 666 861 503).

Laura Rodriguezek hirugarren egin du Puerta del Rey mendi lasterketan

Puerta del Rey mendi lasterketa jokatu zuten aurreko otsailaren 11n Cañete herrian (Cuenca, Espainia). Hainbat distantziatako probak batzen ditu, eta horietako bitan hartu zuen parte Laura Rodriguez elgoibartarrak: gauzez jokatu zuten erlojuz kontrakoan eta 27 kilometroko trailean. Iberiar mendilerroko parte den Cuencako mendietan lehiatu ziren parte hartzaileak. Zapatuan jokatu zuten lehen proba, erlojuaren aurkako bost kilometroko lasterketa, gauzez. Tomas Cuartero (21:24), gizonekoetan, eta Laura Colmenero (27:49), emakumezkoetan, izan ziren azkarrenak. Morkaiko ordezkatu zuen Laura Rodriguezek seigarren denborarik onena egin zuen emakumeetan (33:33). Hurrengo egunean, 29 kilometroko mendi lasterketan lehiatu ziren, eta Israel Fernandez (02:23:03) eta Laura Colmenero (03:07:10) gailendu ziren. Laura Rodriguezek seigarren egin zuen 3:52:32ko



denbora eginda. Bi egunetako emaitzak batuta, baina, sailkapen nagusiko hirugarren postua eskuratu zuen elgoibartarrak.

Larrañaga hirugarren eta Ferreira seigarren, Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketan



Emakumezkoen eta gizonezkoen Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketak jokatu zituzten, otsailaren 19an, Mungian. Unai Iantzi aniztarra gailendu zen gizonezkoetan. Kirolari nafarrak bost minutu eta 50 segundoa saskiratu zituen 50 lokotxak, errekor berria ezarriz. Jon Vegas sailkatu zen bigarren (6:40) eta Jon Larrañaga mendarorak egin zuen hirugarren (6:42). Iraitz Ferreira mendarorarra ere lehiatu zen txapelketan eta seigarren sailkatu zen (6:58). Larrañagak balorazio positiboa egin du bere parte hartzeaz, lanak amaitu berritan oso gustura ez zegoela aitortu arren. "Ondo prestatuta joan nintzen txapelketara eta egin nuena baino saio hobea egitea espero nuen, baina... akats txiki batzuk egin nituen eta ez zitzaidan nik nahi

bezain ondo irten. Lehen sentsazio horien ostean, hotzean, lan eta denbora onak egin nituela uste dut. Iraitz ere ondo moldatu zen, berak ere iaz egindako denbora ontzea lortu baitzuen. Bigarren txandan lehiatu ginen biok, eta irabazleak lehen txandan egin zuen marka ikusita, zaila, ezinezkoa ez esatearen, ikusten genuen Iantzik egin zuen denborara gerturatzea. Txapelduna zoriondu eta aurrera segi, besterik ez dago", esan du Euskal Herriko txapeldun birritan izan den herri kirolari mendarorak. Larrañaga 2011n eta 2021ean jokatutako txapelketetan gailendu zen. Gipuzkoako txapelketa, berriz, sei alditan dauka irabazia. Ainhoa Etxegarai (7:18) beratarra gailendu zen emakumezkoetan, Ainhoa Iraizoz (07:18) eta Amaia Jimenezi (07:47) aurea hartuta.

Ikastaro sorta, martxotik aurrera

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak lau ikastaro eskainiko ditu martxotik aurrera: Batetik, haurdunaldiko gimnasia, Krosfit eta TRX ikastaroak emango dituzte Olaizaga kiroldegian, eta, bestetik, Mintxetan egingo duten emakumeentzako korrika saioak, *Emakumeak Korrika* izenarekin. Lau ikastaro horiekin orain arte Olaizagan zein Mintxetan eskaintzen dituzten hamabost ikastaroen eskaintza zabaldu eta osatuko du Udal Kirol Patronatuak.

Otsailaren 27an irekiko dute Aste Santuko Kirol Campuserako izena emateko epea

Apirilaren 3tik 14ra bitartean egingo dute Aste Santuko Kirol Campusa, eta otsailaren 27an, astelehenean, zabalduko dute izena emateko epea. 2011 eta 2016. urte bitartean (biak barne) jaiotako haurrek, hau da, LH1etik LH6ra arte, parte hartu ahal izango dute kirol campusean. Izen-emate epea martxoaren 24an itxiko dute. Udal Kirol Patronatuko abonatuak 46 euro ordaindu beharko dituzte, eta abonatu ez direnek, 51,20 euro. Guraso bakarreko familiek %30eko deskontua izango dute. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian eskura daiteke, edota 943 744 415 telefono zenbakira deituta.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauez, ospitalean edo etxean. Arratsaldez ere ordu batzuk lan egiteko prest. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua dutut. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Astelehenetik ostiralera. **640 881 328**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Astelehenetik ostiralera. **642 578 943**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, bai eta etxeko garbiketa lanak egiteko ere. Esperientzia daukat. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauez ere bai. **605 402 030**

ETXEBIZITZA

Hiru logelako etxe bila ari gara, alokatzeko. **644 892 034**

Hiru logelako etxea alokatuko nuke. **642 039 066**

Alokatzeko etxe bila nabil. Hiru logelako etxea beharko nuke. **677 259 560**

Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **632 970 110**

GARAJEAK

Marradun garajea alokatzen dut, Lekuederren. **699 143 767**

BESTELAKOAK

Scooter elektrikoak invacare Orion modeloa saltzen da. Pertsonalizatua, larruz egokitutako eserlekuarekin. **659 329 118**



%25eko beherapena edozein izara eta mantatan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke eskailera-zuloko hormak estali edo berritzeko zer tramite egin behar diren eta ea berrikuntza-obra horiek hastea badagoen azkeneko batzarrera agertu ziren etxejabeen onespenerekin.


Zuk diozun obra horiek berrikuntza-lanak dira, ez eraikinaren kontserbaziorako obrak. Berrikuntza-lanak elementu komunetan aldaketa batzuk egiteko izaten dira, baina ez dira ezinbesteko obrak. Aldiz, besteak eraikinaren osotasuna zaintzeko obrak dira, eta horregatik dira derrigor egin beharrekoak.

Berrikuntza-lanen artean egokiak eta luxuzkoak daude. Lehenengoak eraikinaren sorreratik ez zituen prestazioak lortzeko aukera ematen dute, edota eraikina bera erosoagoa edo osatuagoa egiten dute bertan bizi direnentzat, beti ere eraikinaren ezaugarriak eta ingurua aintzat hartuta. Luxuzkoak zeintzuk diren zehaztu beharrik ez dago.

Ondorioa: zure kontsultaren erantzuna eskailera-zuloko hormen erreforma-motaren eta aipatu ditudan inguruabar horien araberakoa izango da. Ez badute apreziazio subjektiboaren muga gairiditzen, legez exijitzea egongo da. Obra horren kostua hiru hileko gastu orokorren zenbatekoa baino handiagoa bada, obrari baietza eman diotenen ordaindu beharko dute eta kontra agertu direnak salbu egongo dira.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Tik, tak, tik, tak... gutxi falta da 8 urte betetzeko! Zorionak, **Galder**, etxekoan partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Irati!** Eskua bete urte, gaur! Ondo pasatu eskiatzen! Etxekoan, eta bereziki ahizpa Eireren partez. Muxu erraldoi bat, *superpatata!*




Zorionak, **Hodei!** Atzo 8 urte! Muxu handi bat etxekoan eta bereziki, Nahiairen partez.



Zorionak, **maitea!** Jada 16 urte! Jarraitu horrela. Muxuak etxekoan, eta bereziki, Manexen partez.



Zorionak, **Nora**, igandean 3 urte handi beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Duna**, igandean 16 urte beteko dituzulako. Aittitta Jose eta amama Mari Karmenen partez.



Zorionak, **Laia**, gaur 2 urtetxo bete dituzulako. Muxu handi bat, Lukenen eta Liberen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

 **943 743 704**

 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.
20870 ELGOIBAR

**Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.**

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BI ATEDUN
SAUBER
HOZKAILUA
1-175 SERIEA**



349 €



- Altuera 175 cm
- 296 litroko edukiera
- Ateko helduleku integratua
- Kristalezko erretiluak
- Baruko argia
- Fruta eta barazkientzako kaxoia

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

24 BARIKUA

20:00 Elkarretaratzea. Sarek dituta, Kalegoen plazan. 'Etxera' ikurrak salduko dituzte.

25 ZAPATUA

09:00 Zuhaitz landaketa. Baso Biziak elkarteak antolatuta, hemen bertako zuhaitzak landatuko dituzte Muskirutzu inguruan. Mintxetan batuko dira.

27 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Zu gabe, bizi naiz'. Loredi Salegik emango du, Lilan.

28 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Martin Amisen 'Lionel Asbo: el estado de Inglaterra' liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

1 EGUAZTENA

18:30 Kale erakusketa: 'STEM emakumeak'. Lekuederren.

3 BARIKUA

18:30 Argazki erakusketa: 'Lumineszenteak'. Hilaren 19ra arte, Kultur Etxean.

Aingeru Guardako jaiak

1 EGUAZTENA

11:00 Meza, Aingeru Guardako ermitan. Ondoren, taberna zabalduko dute.

5 DOMEKA

11:30 Hitzaren liturgia. Ondoren, bertsolariak: Aitor Urbietta eta Maider Arregi. Soinu eta Panderoan: Igor Rey eta Maite Olazabal. Bitartean, herri kirolak.

Eta, Debabarrenean zer?

'Arrainak bihotzean' antzerkia

Eibar, otsailak 26, 17:00etan, Coliseoan



Martik ez daki non bizi diren beldurrak, hortaz lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean. Aita marinela du, eta portuan, egun gris batean, haren zain dagoen bitartean, ekaitz batek uretara jaurtitzeko du. Nahitazeko bidaia hasiko du itsas hondoa zehar, horretarako arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi behar badu ere.

Ongi etorri! gurean izena eman duzuen guztioi Eskerrik asko!






www.elgoibarikastola.eus
943 74 44 41
elgoibar@elgoibarikastola.eus

Zinea



'Irati'

24 barikua: 19:00

25 zapatua: 19:00 / 22:15

26 domeka: 19:00

27 astelehena: 21:00

'Hoooper oilaskoerbia'

26 domeka: 16:30

'El techo amarillo'

(Ongarri zinekluba)

1 eguaztena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Eguz: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

OTSAILA

24 BARIKUA

25 ZAPATUA

26 DOMEKA

27 ASTELEHENA

28 MARTITZENA

Eguz

■ Oruesagasti

Barrenetxea

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

MARTXOA

1 EGUAZTENA

2 EGUENA

3 BARIKUA

Arriola

■ Fernandez

Yudego

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**
943 203 052

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Liher
Bengoetxea
Lendinez

5 urte, Elgoibar

"Olentzero eta Mari Domingi"



Aimar
Arrizabalaga
Rodriguez

6 urte, Elgoibar



"Lagunak jolasten"





Ines Lizundia Kalzakorta

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria del Carmen Urrutia Perez

2023ko otsailaren 4an hil zen, 72 urte zituela.
Haren oroimenez martxoaren 4tik aurrera
hileko lehen zapatuetan meza izango da, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Borrokalaria nekazina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.***

Maite zaitugu.

Etxekoak




Luis Mari Arregi Etxaniz

"Maiorta"

2023ko otsailaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maite zaitugu.

Etxekoak





ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Martxoak **3-4**
10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira.



Parte-hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.